

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

2916

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 10ekoa, Joko eta Ikuskizunen zuzendariarena, joko-lokaletako sarbide-kontrolerako sistemek joko-galarazpenen erregistrora konektatzeko bete beharreko zehaztapen teknikoak ezartzen dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen 120/2016 Dekretua aldatzen duen otsailaren 8ko 19/2022 Dekretuak ezartzen duenez, joko-lokal guztiek, lokalerako sarreran, sarrera ukatzeko eskubidea kontrolatzeko sistema bat izan beharko dute, 17. artikuluko kasuetan dauden pertsonen sartzeko ez uzteko.

Hori dela eta, artikuluko horren bigarren apartatuak haxe ezartzen du: «sarrera ukatzeko eskubidearen kontrolak sistema informatiko bat izan beharko du, joko-galarazpenen erregistroarekin konektatzeko, Jokoa Arautzeko Agintaritzaren ebazpen bidez ezarritako ezaugarrietara egokituko dena».

Azaldutako guztiagatik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen 120/2016 Dekretua aldatzen duen otsailaren 8ko 19/2022 Dekretuak 20. artikuluan emandako eskumenak zein Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Joko-lokaletako sarbide-kontrolerako sistemek joko-galarazpenen erregistrora konektatzeko bete beharreko gutxieneko zehaztapen teknikoak ezartzea, eranskinean ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.– Ebazpen hau jakinaraz dakiola Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizunen Unitateari.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, horren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal da, Segurtasuneko sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 121. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 10a.

Joko eta Ikuskizunen zuzendaria,
AITOR MIKEL URIARTE UNZALU.

ERANSKINA

JOKO-GALARAZPENEN ERREGISTRORA KONEKTATZEKO, JOKO-LOKALETAKO
SARBIDE-KONTROLERAKO SISTEMEK BETE BEHARREKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

1.– Web service.

Jokoaren Erregistro Orokorrean inskribatutako fabrikatzaileak Web-Service (WS) zerbitzu bat garatu beharko du, SOAP protokoloan oinarritutakoa, segurtasuneko geruza gehigarri batekin, eta horrek eskatzen du bidaltzen diren parametroak AES/ECB algoritmoaren bidez eta 128 biteko klabe batekin zifratuta egotea. Era berean, lortzen den erantzuna klabe berarekin zifratuta itzuli beharko da.

Garatu behar den WS-ak kontsultako XML bat egingo du eta erantzun gisa ere XML bat jasoko du.

2.– URL

Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak (JIU), sarbide-kontrolerako aplikazioak edo sistemak homologatzeko prozedura telematikoan bertan, URL bat emango du, horren bidez joko-galarazpenen erregistroaren kontsulta egiteko.

3.– Kontsultako eta erantzuneko XML-ak.

Zerbitzuak procesarLlamadaEncrypt izeneko operazio bat izan behar du. Horrek parametro gisa kontsultako xml bat jasoko du, 128 biteko klabe batekin zifratuta bidaliko dena. Klabe hori aurretik emango du Sailak.

Kontsultako xml-aren egitura hau da:

- Erabiltzailea: web-zerbitzura sartzen saiatzen ari den erabiltzailea (JIZek emandakoa).
- Password: web-zerbitzura sartzen saiatzen ari den erabiltzailearen pasahitza (aurretik base64-n kodifikatutakoa) (JIZek emandakoa).
- Metodoa: 2 balio izan ditzake
 - o ValidarRegistro metodoa: hori erabili behar da erabiltzaile bat fabrikatzailearen aplikazioan erregistratzen den unean, eta han konprobatzen da erabiltzailea adinez nagusia dela eta ez dagoela Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako joko-galarazpenen erregistroan inskribatuta.
 - o ValidarAcceso metodoa: hori erabili behar da erabiltzaile batek fabrikatzailearen aplikazioan logina sartzen duen unean, eta han konprobatzen da erabiltzailea ez dagoela Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako joko-galarazpenen erregistroan inskribatuta.
- Identitate-dokumentua (NAN, AIZ, egoitza-txartela edo pasaporte), web-zerbitzuak adieraziko baitigu pertsona horrek sarbidea daukan ala ez.
- Dokumentu mota: identifikazio-dokumentu mota: NAN, AIZ, egoitza-txartela, pasaporte.
- Jaiotze-data: jaiotze-data formatu honetan: UUUUHHEE. Nahitaezkoa validarRegistro metodoan.

Gertatutako errore-motak SoapFault-en barruan itzultzen dira, WS-a garatzeko egindako protokoloan zehaztuta daude eta protokolo hori JIUren web-orrian dago.

SOAP Fault elementuak gertatutako erroreari buruzko informazioa dauka. Elementu hauek ditu:

- **faultCode:** derrigorrezkoa. Balio hauek hartu ahal ditu:
 - **Client:** SOAPMessage-a ez da zuzena edo ez dauka behar adina informazio. Errorea bezeroak agintzen duenak sorrarazi du.
 - **Server:** SOAPMessage-a ez da behar bezala prozesatu, zerbitzarian prozesamendu-errore bat gertatu delako.
 - **VersionMismatch:** SOAPEnvelope-ren namespace-a ez da baliozkoa.
 - **MustUnderstand:** SOAPHeader baten elementu batek mustUnderstand atributua true moduan dauka, baina zerbitzariak ez du ezagutzen.
- **faultString:** derrigorrezkoa. Errorea azaltzeko testua.
- **faultActor:** aukerakoa. Errorea sorrarazi duen eragilea. Gure web-zerbitzuetan ez gara eragileak definitzen ari. Integrazioko web-zerbitzuei deitzean ez dute garrantzirik.
- **elemento Detail:** aukerakoa. Erroreari buruzko zehaztasunak ditu.

Identitate-dokumentu bati buruzko kontsultari erantzuteko XML-an «S» agertuko da debekatuta badago eta «N» debekatuta ez badago.

4.– Intzidentziak.

Lokaleko operadoreak sistemak itzultzen dituen errore-mezu guztiak tratatu behar ditu eta eskuz jaso beharko ditu lokalera sartzen den pertsonaren datuak (identifikazio-zenbakia), data eta ordua; kontrol eta ikuskapen helburuekin. Hori guztia, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrekin eta Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa den abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorritz.

5.– Beste zehaztapen batzuk.

- Sistema edo aplikazioa instalatzen duen enpresak konprobatu behar du, beti, lokalera edo aplikaziora sartu nahi duen pertsona ez dagoela Euskadiko joko-galarazpenen erregistroko fitxategian eta ez dela adingabea.
- Lokaleko langileek eta sistemak, modu automatikoan eta jarraikako bisitetan, sartu nahi duen pertsonaren identitatea egiaztatuko dute modu frogagarrian eta konprobatuko dute sartu nahi duena eta identifikatzen dena pertsona bera direla; izan ere, dokumentazioa baino ez bada konprobatzen, norbait sar liteke berea ez den dokumentu bat erabiliz.
- Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitateak (JIU), «in situ» konprobatzeko pertsona bat ezarritako kontrolatik igaro den ala ez, aukera izan behar du, instalatuko den sisteman edo aplikazioan, NAN, pasaportearen arabera onartutako beste baliabide batzuk kontsultatzeko, baita kontrolatik zein ordutan igaro den ere.
- Enpresak sartzen diren pertsonen erregistro- eta identifikazio-datuak gorde ahal izango ditu, betiere enpresaren erantzukizunpean eta dagozkien datu pertsonalen fitxategien deklarazioak eginda, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrekin eta Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa den abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat. Datuak fitxategi horretan egon arren, nahitaezkoa da horiek aurretik konprobatzea, ezarritako Web-Servicerekin bidez.
- Estatistika-helburuetarako, sistemak informazio hau guztia monitorizatu behar du, eta Jokoa Arautzeko Agintaritzak eskatuta bidali ere egin behar du:

- Sarrera-fluxua.
 - Kontsultaren emaitza (baliozkoa ala balio gabea).
 - Kontsultaren eguna eta ordua.
- Joko-lokaletan ezarri behar diren sistemak, hesietan, tornuetan edo antzeko sistemetan oinarritutakoak, lokala husteko larrialdi baten aurrean, desblokeatu behar dira, eskuz edo automatikoki, eta, lokalak alarma baldin badauka, alarma-sistemari konektatutako desblokeo automatikoari lehentasuna emango zaio. Sistema automatikoa izan eta alarmari konektatuta egon arren, nahitaezkoa izango da sarbidearen kontrola eskuz akzionatzeko aukera izatea, alarma aktibatzea eragiten ez duten kasuetarako. Une oro egon beharko da eskuz desblokeatzen dakien eta horretaz arduratzen den pertsona bat.
 - Instalatutako elementuek ez dute pasabidea oztopatu behar larrialdi-egoeretan, eta ez dute ebakuazio-bideen zabalera murriztu behar, horrek lokaleko ebakuazio-gaitasuna murrizten duelako.
 - Instalatutako elementuek Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretuko Arau Teknikoetan irisgarritasun-baldintzei buruz ezarritakoa bete beharko dute eta Eraikuntzako Kode Teknikoaren Erabileraren Segurtasuneko eta Irisgarritasuneko Oinarrizko Eskakizunak (DB-SUA) ere bai.
 - Hori guztia, publikoari irekitako lokalei eta joko-lokalei aplikagarri zaien berariazko araudiari kalterik egin gabe.